

GORPUTZAREN KULTURAK: VENEZUELA FAMILIA SAKRATUA¹

Javier Guerrero

Lawrence University

javiergfilms@gmail.com


Aipatzeko gomendioa || GUERRERO, Javier (2012): "Gorputzaren kulturak: Venezuelako familia sakratua" [artikulu linean], 452ºF. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 6, 17-38 , [Kontsulta data: dd/mm/aa],
< http://www.452f.com/pdf/numero06/06_452f-mono-javier-guerrero-eu.pdf>

Ilustrazioa || Juan M. Tavella

Itzulpena || Mikel Babiano

Artikulu || Jasota | Argitaratuta: 01/2012

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honetan, gorputza Venezuelako politika eztabaidatzen den lekune abantailatsu bezala irakurtzea proposatzen dut. Bereziki, azalduko dut nazioaren eta haren biolentziaren operazio metaforiko eta alegorikoek gorputz nazionalak nola desitxuratzen dituzten, munstrotasunera iritsi arte, ondoren, normalizatzeko. Venezuelako familia *sakratuaren* desitxuraketan etsai politikoaren erantzukizuna salatzen konpultsioa izan arren, nazioaren gorputz nagusia kaltegabe mantentzeko beharrezkoak diferentziek eta noiz-nolako boterearen jabetzak baino indar handiagoa izango du. Nazio familia hori osatzen duten gorputzak produkzio arazotsuak dira, eta Venezuelako nazioaren balio kontserbatzaileenak desegonkortzeko, berriskusteko edo berridazteko beste gorputz eta sentsibilitateentzat leku txikia utziko dute.

Gako-hitzak || Venezuela | Gorputza | Familia venezuelarra | Nazioa | Simón Bolívar | Hugo Chávez | Iraultza bolivariarra | Biolentzia | Gay gorputza.

Abstract || In this article, I propose reading the body as a privileged space to debate Venezuelan politics. I expose the violent metaphorical and allegorical operations that manage to disfigure the national bodies, taking them to the very limits of monstrosity before normalizing them. Notwithstanding the compulsion to denounce the political adversary that defiles the Venezuelan 'holy' family, the need to preserve the national body par excellence is stronger than these differences and the incidental possession of power. The bodies that make up this national family are problematic productions that offer little space for other bodies and sensibilities to destabilize, revise, or re-articulate the Venezuelan nation's most conservative values.

Keywords || Venezuela, body, Venezuelan family, nation, Simón Bolívar, Hugo Chávez, Bolivarian revolution, violence, gay body.

1 | Artikulu honen lehendabiziko bertsioa *Gazing at Bolívar's Body* sinposioan aurkeztu nuen. Berau 2009ko azaroan izan zen Houston-go Rice University-n (AEB). Ondorengo lagunei eskerrak eman nahi dizkiet: Luis Duno-Gottberg, Beatriz González Stephan, Nathalie Bouzaglo, Rafael Sánchez eta Gina Saraceni, beren iruzkinengatik eta gorputz venezuelarrei buruz izan ditugun elkarrizketa sakonengatik.

0. Sarrera: «Véase usted mismo por dentro»

2009ko martxoak 4, 7:30 pm. Guardia Nazionaleko hogeita bost langile, Ikerketa Zientifiko, Penal eta Kriminalistikoaren Saileko (CICPC) hogeita agente, Auzitegi-dibisioko koordinatzaile nazionala, Aduana- eta Zerga-Administrazioko zerbitzu Nazional Integratuko («Informe del SENIAT sobre Exposición *Bodies*» 2009) hamabost funtzionario eta Venezuelako Telebistako —VTV, Venezuelako estatuko kate publikoa— kazetari talde bat *Bodies, Revealed* erakusketa inaguratuko zuen merkataritza-lokalera sartu ziren Caracasen (Orozco, 2009). Funtzionarioek esan zuten erakusketako hamairu gorpuak eta berrehun eta hemeretzi gorako organoak giza-gorpu eta organoak zirela, polimeroetan oinarritutako prozesu berezi baten bitartez diseinatutako hildakoak, enpresak plastikozkoak zirela azpimarratzen zuten arren. Hori dela eta, agintaritza eskudunek *Bodies...* erakusketa itxi zuten, gaizki-ulertua ote zen argitu arte.

Venezuelako erakunde estatalen esku-hartzea gobernuaren aldeko *Vea* egunkariak «*Bodies Inhumanos*» artikulua argitaratu ondoren gertatu zen. Artikulu horretan, egunkariak gobernu nazionalari eskatzen zion «merkataritza-nekrofilaren erakusgarri hori geldiarazteko». Esku hartzeaz batera, zerga-organoko superintendenteak, erakusketari buruzko publizitatean oinarrituta, zera adierazi zuten hildakoei buruz: «fueron tratados con todo el respeto y con toda la dignidad que merece un ser humano [...]» (Bracci y García, 2009). Nolanahi ere, beharrezkoa omen zen baieztapen hori zalantzan jartzea, gorpuekin errespetuz eta duintasunez aritzuz gero ez zituztelako «parte plastiko» (Bracci y García, 2009) izendatuko. Erakusketa aldi baterako itxi ostean, CICPC-eko auzitegi-sailak, INDEPABIS-ak eta SENIAT-ak berak osatzen zuten diziplina anitzeko taldeak erakusketako gorpuak egiazko giza-atalak —eta ez plastikozko zatiak, enpresak Aduanako autoritateei sinetsarazi zien bezala— zirela egiaztatu zuten. Hortaz, zerga-organismoak aipatu ondasunen behin-behineko onarpena ahalbidetu zuten administrazio-jarduerak etetea erabaki zuten. Era berean, hamar eguneko epea eman zuten merkantziak herrialdetik ateratzeko, enpresari isuna jarri zion, behin-behineko baimena eskuratzeko betebeharrak eta baldintzak errespetatu ez zituelako, prozesuan parte hartu zuten Aduanako funtzionarioei diziplinazko administrazio-prozedura ireki zieten, aduanako administrazioaren aurretiko baimenik gabe merkantzien erabilera onartu baitzuten, erakusketa itxi zuten, martxan egon zen bitartean faktura egiteko araudia bete ez zituelako, eta enpresa itxi zuten, erosketa- eta salmenta-liburuak beren egoitzan ez edukitzeagatik (SENIAT, 2009).



Fig. 1. *Bodies, Revealed* erakusketaren itxieraren argazkia. Caracas, 2009ko martxoak 4

2009ko martxoaren 8an, igandea, itxiera baino lau egun lehenago, Hugo Chávez Venezuelako presidenteak igandeetako *Aló Presidente* bere telebistako programan baieztatu zuen bera izan zela, *Vea* egunkariko artikulua irakurri bezain laster, Ramon Carrizales Venezuelako presidenteordeari *Bodies...* ikertzeko eskatu ziona. Chávezen iritziz, erakusketa planeta osoa astintzen duen gainbehera moral izugarriaren isla argia zen. Presidenteak ezin zuen sinetsi gurasoek beren seme-alabak hildakoak ikustera eramaten zituztela eta erakusketa munduan gora eta behera aritu izanak harritzen zuen: «Tienen internet, propaganda, presentan un show: “Venga y véase usted mismo por dentro”. Y ganan mucho dinero. ¿Dónde está el respeto al ser humano? Como dice Antonio Aponte: “Esos cadáveres, ¿de quién son? ¿Por qué están insepultos?”» (Bracci, 2009). Presidentearen iritziz, erakusketa «basakeriaren» adierazgarria zen eta beharrezkoa zen hari «iraultza moral eta etiko» baten bitartez erantzutea.

Aipatu kontakizunarekin hasi nahi dut gorputzari buruzko lan hau, Venezuela boliviarreko gorputzaren irudikapenen sarrera, testuinguru gisa. Gorputzaren, hots, *Bodies...* erakusketaren itxiera Venezuelako irudikapen horiek baldintzatzen dituen polarizazio politikoaren mende dago baita ere. Are gehiago, gobernu-estatuaren botere osoaren —mediatikoa eta, hortaz, intimidatzailea— esku-hartzeak erakusketaren itxiera politizatu zuen. Iritzi publikoaren arabera, debekatutako gorputza aurrerakuntza zientifiko eta kulturala zein aurrerapena eten izanaren metafora bihurtu zen. Hala eta guztiz ere, esku-hartze hori testuinguru gisa aurkeztu nahi dut, besterik gabe, nire buruari galdetu gabe zein den debekatutako gorputza, dela kontsumoarekin lotutako frankizia globalizatu baten gorputz erreproduzitua —erakusketaren ingelesezko tituluak azpimarratzen duen bezala—, dela aurrerapenaren, aurrerakuntza zientifiko eta kulturalaren gorputza. Ez diot nire buruari galdetzen zein den debekatutako gorputza, galderak berak eztabaidatu nahi dudan irudikari polarizatua baldintzatzen baitu. Aitzitik, azpimarratu nahi nuke gorputzaren debekua eta arazo nazionalak bat direla, gobernuak, iritzi publikoak, oposizioak eta nazioa osatzen duten

gorputzek horrelako kontuei inoiz baino gehiago erreparatzen dietela, alegia.

Artikulu honetan proposatu nahinuke gorputza politika venezuelarraren eztabaida-lekune pribilegiatua dela. Bereziki, adierazi nahi nuke gorputz nazionalari buruzko operazio metaforiko eta alegorikoek hain leku eskasa uzten dietela beste materia eta sentsibilitateei, ezen horiek albo-estrategietara jo beste erremediorik ez baitute — batzuetan arrakastarik gabe— nazioko espazio pribilegiatuetan agertu ahal izateko. Nola hitz egiten dute baztertutako gorputz horiei buruz? Nola deformatzen dira nazioarentzat garrantzitsuak diren gorputzak? Zergatik desitxuratzen dira? Zeintzuk dira operazio horiei buruzko nondik norakoak? Zeintzuk dira nazioaren familia normalizatzen duten operazioak? Aipatu gorputzak erresistenteak al dira nazioaren gorputz-hegemoniaren taktikekiko eta haiekin lotutako tirabirekiko? Zein eragin dute materialki? Badirudi gorputzen kultura hauetan, batzuetan, gorputzak berak ikusezinak direla. Frogatu nahi nuke nazioaren familia *sakratua* osatzen duten gorputzak beste gorputz konplexuago batzuen edota nazioaren balio kontserbadoreenak — arrazistak, klasistak eta heteroarautzaileak— desoreka, berrikusi eta berinterpretarazi ditzaketen gorputzen bizikidetzaz zailtzen duten produkzio problematikoak direla.

1. «Véase usted mismo por fuera»

Baliteke Venezuelari buruzko ikerketek nahikoa garrantzia eskaini ez izana gorputzek herrialde horretan, XX. mendean, nazioaren irudikapen kultural gisa eragin duten etengabeko antsietateari. Venezuelako XIX. mendearen amaieran, gorputza interes publikoaren erdigunean egon zen, gaixotasunen eta sexualitateen materia eztabaida ezina baitzen. Paulette Silvak *De médicos, idilios y otras historias* bere liburuan gogorarazten du mendearen amaierako kulturara hurbiltzen den lagun oro harritu egingo dela aldatzen hasi berri den herrialde horretan nonahi entzuten direlako kultura modernoak eragiten dituen gaixotasunei buruzko eztabaidak (2000: 173). Gaixotasun horien arabera, aztertu, ikusi eta entzun beharreko gorputza modernitatearen leku pribilegiatua da. Aberriko gorputzak ugaritzeak, edertasun-lehiaketekiko² lilurak zein Venezuelako presidentearen ezaugarri anatomikoen nagusitasunak gorputza nonahi dagoela adierazten digute eta nazioa irudikatzeko modua islatzen dute, nazioa *gorputzeko* modua, hain zuzen ere.

Venezuelan, presidenteen zein aberriko heroien gorputzek beti piztu dute interes berezia. Simón Bolívarrekiko miresmena lotuta egon da bere gorputz-ezaugarrien goraipamenarekin edo, gutxienez, Askatzaile gisa zuen itxuraren handitasunarekin. Bolívarren gorputzari buruz adostasun batera iristeko beharra³ etengabeko joera izan da

OHARRAK

2 | Esan genezake Venezuelan edertasun-lehiaketekiko gurtza moduko bat existitzen dela, Venezuelako errepublikako presidentek ere sustatu dutena. Venezuelako hautagaiak *Miss Universe* lehiaketa jarraian irabazi zuela eta, Hugo Chávez presidentek Estefanía Fernández irabazlea jendaurrean zoriondu zuen eta Venezuelak nazioarteko lehiaketa horri zegokionez zuen Guinness errekorra nabarmendu zuen.

3 | Simón Bolívarren aurpegi bakarraren gaia presente egon da beti, hura gorputz nazional gisa asmatu eta Askatzaile gisa instituzionalizatu zutenetik. Marta Traba-k, bere artikulan, Alfredo Boulton-ek Bolívarri buruz egin zuen erakusketa ikonografikoa goraipatzen du eta erakusketak zera duela azpimarratzen du: «un sentido pedagógico de investigación histórica, cuya finalidad es la de aproximar la mayor cantidad de rasgos semejantes y de cotejar unas y otras interpretaciones hechas en vida de Bolívar, hasta fijar ese rostro móvil, sacar ese rostro del agua del tiempo y obligarlo, pacientemente, a definirse con claridad» (2005: 221).

miresmen horren historian eta ezaugarri anatomikoen egonkortasuna funtsezkoa izan da Bolívar Aberriaren Aita eztabaidaezin eta errepikaezin gisa finkatzeko. Bolívarri buruzko bere biografian, John Lynch-ek uste du Latinoamerikaren independentzia ulertezina litzatekeela askatzailerik gabe. «La historia subsiguiente sería algo vacío sin la intervención de la autoridad personal» (Martínez, 2006 – en aipatua). Autoritate pertsonal hori asmatzeko abiapuntua aberriko gorputzaren finkapena bera da. Lynchen arabera:

The [Bolívar] cultists had a good story. A hero of pure Venezuelan lineage, after a tragic marriage and a golden youth in Europe, assumes the leadership of national independence, provides the intellectual base of a continent revolution, and then the military and political talents to create a union of states and win international respect, all the time asserting his manhood as a glorious lover (Lynch, 2006: 301).

Beste hainbeste gertatu da Venezuelako presidentekin, Juan Vicente Gómezengandik Hugo Chávezenganaino. Presidenteen gorputza Venezuelako nazioaren interes-gai handienetarikoa izan da, eta Hugo Chávezena ez da salbuespena. Espekulazioek denborapasa nazional hori hondatu dute. Hugo Chávez loditu izana —bere *obesitatea*, gizentasuna— esan dudanaren aurkako ikuspuntuarekin lotuta erabili izan dute. Oposizioko, nazioko eta nazioarteko sektoreei deigarria iruditu zaie Venezuelako presidentea zein azkar loditu den. Salomón Jakubowicz doktorearen «¿Por qué Chávez ha aumentado de peso y qué puede hacer para adelgazar?» artikulua gizentasunaren arrazoiei buruzkoa da, presidentea, beharbada, medikamentuak (antidepresiboak, ansiolitikoak etab) hartzen ari dela iradokitzen du eta horiek direla, hain zuzen ere, loditasunaren arrazoa. Lo eza eta etengabeko bidaiak ere aipatzen ditu. Aukera horiek guztiak sektore politiko ezberdinek presidentearen gehiegizko pisuari buruz dituzten espekulazioen isla dira. Hala eta guztiz ere, eta batik bat, Hugo Chávezen obesitateak botere gehiegikeriaren eta autoritatearen irudia zabaldu du nazioartean eta, nolabait, XXI. mendean errepublika *zarpail* berriko diktadorearen gorputza berrasmatu du. Zalantzarik gabe, alda eta molda daitekeen materia da gorputza.

Era berean, Hugo Chávezek biztanleriaren gorputz-masaren indizea handitu egin dela adierazi du. Bere estatistiken arabera, Venezuelako biztanleen % 14,5 gehiegizko pisua du, duela hogeituro urteko % 6,3ren aldean («Chávez dice que “hay muchos gordos...”»). Presidenteak, ikuspuntu biopolitiko batetik, bederen, venezuelarren osasunaz kezkatuta dagoela badio ere, gehiegizko pisuaren inguruko estatistikak baliagarriak zaizkio aurrerapen ekonomikoa eta nazioaren diru-sarreren birbanaketa neurtzeko. Zergatia azaltzea ezinezkoa den arren, presidentearen arabera Venezuelako biztanleen batezbesteko gorputzaren gehiegizko pisua ongizatearen isla da: gehiegizko pisuak nazioaren osasuna erakusten digu —eta

emaitza positiboa da—.

Era berean, presidentearen osasunak zer esana eman du Venezuelan eta interes eta premia nazionalen aurretik ere lehenetsi dute⁴. 2011an, Kuba-Venezuela Bitariko VI. Batzordean parte hartu ondoren, Hugo Chávez Habanan operatu behar izan zuten, larrialdi baten ondorioz («Comunicado oficial...»). Handik lasterrera, Venezuelako presidentek telebistan esan zuten minbizia zuela, gaixotasunari buruzko xehetasun gehiago eskaini gabe. Hortaz, berau ez da oraindik zeharo argitu. Presidentearen gaixotasunari buruzko doitasunik eza espekulazioen iturri agortezina izan da eta Hugo Chávezen gorputza Venezuelako polarizazio politikoko materia erabakigarri bilakatu da, presidentearen aldekoen zein oposiziokoaren artean. Gorputza, bere gaixotasuna dela-eta, Venezuela egun eta etorkizunean gobernatzeko ezinbesteko elementu bihurtu da. Izan ere, gorputza, bere bokantza gorabehera, etengabe debekatzen eta moldatzen dute, hegemonia nazionalaren komenentzia eta interesen arabera.

Jean-Luc Nancy filosofo frantziarraren arabera, gorputza ez da ez adierazle ez adierazia (2008: 25). Ez dugu gorputzik, gorputza *gara*. Gorputza existentziaren hausturaren luzapena da, erakustea, kanporatzea. Nancyk artikulu honetan aipatu nahi dudana adierazpen interesgarria egin zuten: «El cuerpo es una imagen que se ofrece a otros cuerpos, todo un corpus de imágenes tensadas de cuerpo a cuerpo» (2008: 121). Zentzu horretan, gorputzaren irudikapenak tentsio horren, elkarri lotutako gorputz kate horren, mende nola dauden ulertu nahi dit. Hala eta guztiz ere, Nancyk berak aipatzen duen baldintza errepikaria kontuan hartzea komeni zaigu, haren iritziz, eta gorputzarekin lotuta, isiltzeko promesa baitugu: «no tanto de callar a propósito del cuerpo, sino más bien de callar al cuerpo, sustrayéndolo materialmente a las improntas significantes, aquí, directamente, en la página escrita y leída» (Nancy, 2003: 6). Gorputzaren ikusmolde honetan ezinbestekoa da gorputzaren eta idatzitakoaren arteko tartea txikitzea. Nancyren ustez, gorputzari buruz hitz egiteko aukera bakarrak —eta zentzu horretan ulertzen dut bere liburuetako performatibitatea, batik bat *Corpus* eta *El intruso*-ren kasuan— gorputza idaztea du abiapuntu, gorputzaren gainean idaztea eta gorputza inskribatzea, hain zuzen ere. *Idazteak* eta *inskribatzeak* ukitzea, esku hartzea eragiten du. Horrela, idaztea eta gorputza *ukitzea* bat bera dira.

Orain arte Venezuelako gorputzak izan duen eta duen nagusitasunaren berri eman dut, baina, paradoxikoki, beharrezkoa da XXI. mendeko Venezuelako gorputzaren irudikapen fikzionalak ezkutatzea helburu izan duten etengabeko operazio kritikoak nabarmentzea. Esanguratsua da, esate baterako, Armando Reverón-en kasua. Nazio eta nazioarteko kritikak paisaia nabarmendu nahi izan du

OHARRAK

4 | Horri dagokionez, Luis Duno-Gottberg-ek nabarmentzen du Chávez presidentearen gaixotasunak interes mediatikoa piztu duela, baita minbiziaren diagnostikoa jakinarazi baino lehenago ere: «El personalismo que ha caracterizado la presidencia de Hugo Chávez Frías ha creado también oportunidades para la emergencia de otro tipo de lecturas en las que el cuerpo enfermo de la nación se corresponde al cuerpo enfermo del mandatario. Recordamos inevitablemente aquí las reflexiones de Hobbes, abordadas al inicio de este ensayo, y leemos este tipo de razonamiento desde la imagen de un “Leviatán populista”: si el líder carismático encarna la nación-pueblo y ésta se halla enferma, entonces el cuerpo del primero comunica (acaso por contagio) el estado de la segunda. En el año 2008, el siario *Versión Final*, de la ciudad de Maracaibo, dedicó una gran página al tema de “la enfermedad de Hugo Chávez”. Una serie de gráficos y cuadros explicativos operaban allí como diseccionando la figura del presidente para comprobar que no sólo sufría de una serie de trastornos en la cervical, sino, más importante aún, que todo ello podía afectar su estado psíquico, haciéndolo irritable. En la parte inferior del recuadro se sugiere incluso su consumo de tabaco y cafeína como “caldo de cultivo [de su] cuadro clínico”. Estos razonamientos se conectan también a una serie de acusaciones absurdas sobre su consumo de drogas, aunque la discusión había ya alcanzado su más alto grado de ridículo cuando, meses antes, se habían difundido las declaraciones del astrólogo Walter Mercado, quien predecía la muerte del presidente a causa de “una extraña enfermedad de la cabeza”» (2009: 423-424).

gorputzaren gainetik margolari venezuelarraren lanetan. Alfredo Boulton-ek ozen eta harro adierazten du Rereverónek margotu eta eraikitzen dituen gorputz sexuatuetik fobia sentitzen duela eta, konpulsiboki, Venezuelako artista paisaia margolaria dela aldarrikatzen du. Reverónen eskumutur ezagunak desitxuratuta daude, beldurra eta nazka eragiten dute. Ezezaguna den aldetik arriskutsua ere baden gorputz sexuatuarekiko fobia horrek artista venezuelarra nazioartean finkatzea kolokan jarri du eta baita hura modernitate plastikoan sartzea ere. Kritikarien arabera, paisaia horiek plastika venezuelarra modernitatean murgiltzeko zuzeneko txartela dira, horretarako gorputza ukatu behar badute ere⁵. Horrela, Reverón argiaren artista da, Venezuelako margolari nazionala, Karibeko sarean sartu zuten lehendabizi eta nazioarteko modernismoan geroago. Modernismoarako sarreraren adierazle nagusia artistak 2007an New Yorkeko Arte Modernoko Museoan (MoMA) eskaini zuen bakarkako erakusketa izan zen.

Izanak izan, gorputzaren irudikapenek eztabaida handiak pizten dituzte Venezuelen. Polarizazio politikoak gorputzak hartu eta moldatzen ditu eta, horrela, *nazioaren familia berria* izendatzen dudana taldea sortzea eragiten du. Era berean, eszena nazionalak baztertutako gorputzak aipatzen ditu, ezabatzeko asmoz, ukatzeko, espazio nazionaletik *kanpo* daudela azpimarratzeko. Jarraian hiru gertakari aipatu ditut, haietan gorputzaren materialtasuna interes eta espekulazio *materia* bihurtzen baita, baina, batik batik, nazioaren ondoez politiko orori buruz hausnartzeko testuinguru. Aipatu ditudan hiru gertakarietan venezuelarren begiek gorputzari eta haren transformazio eta materialtasunari erreparatu zieten. Irudikapen horiek nazioaren familia berria nola materializatzen eta gorputzen duten azaldu nahi dut.

2. Venezuelako familia sakratua

2.1. Ama

2004ko ekainak 6. Klean mende erdi bat baino gehiago egotearen ondorioz, María Lionza Venezuelako jainkosaren estatua — Venezuelako nazioaren oinarritzko irudikapena, Caracaseko autopista nagusian kokatua— zaharberritu egin zuten. Zaharberritze-lanak amaitu zirela adierazi eta egun bat geroago, estatua bitan zatituta agertu zen, gerritik puskatuta. Fundapatrimoniok, lanak zuzendu zituen instituzioak, zaharberritze-prozesua amaitu zutela jakinarazi zuen: «tratamiento preventivo para conservar las partes más afectadas por el avanzado deterioro de la pieza, cada vez más agrietada» («Cae María Lionza», 2004). Jainkosaren gorputzaren haustura Venezuelako Unibertsitate Zentraleko —haren sarreran zegoen estatua— autoritateen eta Fundapatrimonioren —Libertador-

OHARRAK

5 | Alfredo Boulton-en *Reverón* liburuaren hitzaurrean, Guillermo Meneses Venezuelako idazleari gustatzen zaio artistaren lanean gorputzak duen garrantzia. Hortaz, hura azpimarratzen ahalegintzen da. Uste du eskumuturren agerpenak artistaren aurreko lanetik ezberdintasun handiak islatzen dituela. Emakumezko gorputzek transmititzen duten malenkonia barearekin batera, «ambientes de lujuria y violencia» topatzen ditugu, honakoarekin ere aldera litezkeenak: «cierto falso mundo parisino sacado de Toulouse Lautrec» (Meneses, 1979: 57). Venezuelako idazlearen arabera, gorputz berriak Reverónek ordura arte aplikatu zituen sormen-prozesuekiko haustura nabarmena dira. Hala eta guztiz ere, Menesesi Reverónen lanetako eskumuturrak eta gorputzaren irudipen boteretsuak — bereziki emakumezko gorputzenak— interesatzen zaizkion arren, argi uzten du Alfredo Boultonen tesia konpartitzen duela. Hortaz, Reverón paisaia margolaria da: «No podemos señalar con una raya firme la época de las muñecas como un momento que separa definitivamente ciertas formas de la obra de Reverón. La tarea del artista no está limitada a la invención de formas y colores referidos al cuerpo humano. Mucho de lo mejor que realizó a lo largo de sus años de actividad está relacionado con el paisaje y mal podría pretenderse catalogar dentro de determinada época lo que corresponde a su relación con modelos o con *muñecas*» (Meneses, 1979: 57). Interes eta norabide aldaketa hori sintomatikoa da, Meneses izan baita Reverónen lanean gorputzaren nagusitasuna eta eskumuturren sorkuntzaren garrantzia azpimarratu dituen

ko alkatetzari atxikitako instituzio ofiziala— arteko eztabaida sutsuen testuinguruan gertatu zen; eztabaidok estatuaren zaharberitze-lanei eta birkokapenari buruzkoak ziren. Jainkosaren gorputz erdibiditua ikuspuntu ezberdinetatik interpretatu zuten, baina Venezuelan gurtza handia duen figura mitiko gisa⁶ mantendu zen eta, zalantzarik gabe, panteoi mestizo nazionalako feminitate esanguratsuenetarikoa da. Besteak beste, hausturaren kontura herrialde polarizatu harentzat garai zailak iristear zeudela interpretatu zuten, urte hartan (2004ko abuztua) Hugo Chávezen gobernuaren eta Errepublikaren gobernagarritasunaren amaiera eragin ahalko zuen erreferendum baliogabetzaile bat antolatuko baitzuten.

«¡María Lionza, llévatelo!, ¡María Lionza, cuídalo!» ziren, kazetaritza-iturrien arabera (EFE), estatua kaltetuaren inguruan entzuten ziren kontsignak. Fundapatrimonio eta UCV-ko COPRED-en zuzendarien arteko eztabaiden ondorioz gorputza hautsi zutela-eta, Alejandro Colonia Fundazioak —estatuaren egile-eskubideen jabea, Colina eskultorea Venezuelako jainkosaren irudikapen ezagunenaren egilea baita— komunikatu bat idatzi zuen eta bi aldeei eskatu zien María Lionza agenda politikotik kanpo uzteko eta bien arteko adostauna lortzeko («La Fundación Alejandro Colina...», 2004). Yolanda Salas gurtza-adituaren arabera, harrez geroztik jainkosaren gorputz puskatuak esangura berria bereganatu zuen: «la metáfora de una Venezuela que está despedazada por un enfrentamiento político: dos bandos están destrozando al país y a sí mismos» («Diosa pagana se rompe...», 2004). Era berean, kazetaritza-kronika baten arabera, presidenteak ez du kasuari eta Sorteko jainkosari buruz aipamenik egin, baina zurrumurru batzuen berri eman zuen, erreferendumearen aurreko topagune batean oposizioko talde batzuek presidenteari boterea kentzeko *sorginkeria* zerabiltelari buruzkoak: «“¡150 brujos y que tiene el comando del diablo!”», esan zuen. Baina arrakastarik izango ez zutela gogorarazi zuen: “¡con nosotros está Cristo, que pulveriza (a) brujos y brujas!”» («Chávez acusa a la oposición...»).

2.2. Seme-alabak

2006ko apirilak 5. Hamazpi urteko Jhon Bryan Faddoul, hamairu urteko Kevin José Faddoul eta hamabi urteko Jeason Faddoul anaien gorpuak topatu zituzten Yare herrian, Caracasetik berrogei kilometrora, hego-mendebaldean. Horietako batek, Kevin Josek, bere eskuineko hanka eta eskua mugitzea galarazten zion garun-paralisia zuen. Faddoul anaiak Miguel Rivas beren gidariarekin batera bahitu zituzten, urte bereko otsailaren 23an polizia-kontrol faltsu batean geldiarazi zituztenean. Hona hemen gorpuen deskribapena: «impactos de bala en la región occipital y cervical y en forma lineal, por lo cual se presume que se trató de un ajusticiamiento [...] ocurrido [...] 48 o 72 horas antes de su hallazgo» («Ministro Jesse Chacón confirma...», 2006). Hala eta guztiz ere, gorpuak topatu ostean,

OHARRAK

artista bakarrenetarikoa. Boulton-en liburuaren hitzaurrean ere, Venezuelako idazleak, nolabait, eskumuturrek modeloak ordezkatzan dituztela azpimarratzen duen tesia ere ukatzen du, garai bereko beste koadro batzuek diren bezalakoak irudikatzen dituztela defendatzen duen neurrian: «Muchos de esos estudios (bocetos hechos en carboncillos y lápices de color) [...] no dejan la menor duda, al ser reproducidos en los cuadros, de que se trata de objetos fabricados» (1979: 56). Idazlearen arabera, badirudi irudikatutako figurak airean igeri egiten dutela edo zintzilik daudela. Menesesek amore ematen du Boulton-ek zorrotasunez eraikitako tradizioaren aurrean eta, horrela, bitartekotzaren ondoriozko lana ikustera derrigortzen gaitu.

6 | Rafael Sánchez-ek deskribatzen du María Lionzaren mitoa gurtza nola bihurtu zen: «The development of the María Lionza cult illustrates the tensions and dynamism inherent in this populist imaginary. Through a host of publication, public forums, and media interventions, drawing on available iconographical and literary representations, in the 1930s and 1940s a group of *indigenista* artists and intellectuals turned what until then was a set of dispersed and localized oral traditions into an aboriginal myth aimed at a national audience. Centered on the mythical figure of María Lionza, presumably a princess from an aboriginal tribe, this elite artifact was part and parcel of a more general populist move to represent the nation as uniquely autochthonous. Eagerly taken over by individuals and groups from the slum areas of the largest cities, this artifact rapidly began to lead a life of

OHARRAK

its own. Translated across cultural level, the “Myth of María Lionza” eventually changed into the “Cult of María Lionza”, and, in the shift, the princess became a queen [...]. This transformation of myth into cult entailed a vertiginous and open-ended incorporation of heterogeneous influences and signifiers, from Kardecist spiritualism and Catholic and state iconography to Cuban Santería and a welter of globalized media images [...]. As a result, the meaning of “María Lionza” have migrated ever further away from those intended by the elite mythographers. And the process continues» (Sánchez, 2001: 393-394).

mugikor baten bitartez egindako eta Kanadan zabalduko bideo batek erakutsi zuen bahitzaileek hildako pertsonen gorpuak biluzik utzi zituztela. Dirudenez, poliziak jantzi egin zituen eta beste herri batera eraman, herrialde osoaren aurrean aurkeztu aurretik. Faddoul anaien eta Miguel Rivasen gorputz hilak eskola-uniformeekin jantzi zituzten, beren biluztasunak iradokitzen zuen biolentzia estaltzeko.

Kasuaren inguruan hipotesi ugari sortu ziren. Gorpuen kokagunea, nola jantzita zeuden —umeeek eskola-adina zuten, baina kamiseten kolorea ez zetorren bat beren ikasturteekin—, gurasoen hitzak, haien ekintzak. Haurrak hilik topatu ostean, amak honakoa esan zion nazioari, *Errepublikaren orientatzailetzat* zuenari zuzenduta:

Al pasar por alto y no darle importancia a esta tortura y asesinato de cuatro personas, entre ellos un niño con parálisis, yo, Gladys Diab, públicamente anuncio: lo aborrezco [...] No lo odio, para mí este y otros casos de apatía a la ley de Dios van a ser el inicio del fin, de orientar a Venezuela bajo la luz divina de la paz y la justicia» (Madre de los Faddoul...).

Hala eta guztiz ere, handik lasterrera, oposizioaren aldekoa den telebista programa batean, RCTV kateko *La entrevista*-n, Faddoul anaien amak honakoa eskatu zuen: «A las personas que quieran usar mis palabras con fines propios, les pido que no utilicen mi dolor... esta cruz se me está haciendo más pesada al ver que mis palabras quieren utilizarse con fines políticos». Faddoul anaien eta Miguel Rivasen hildako gorputzak «estatuaren inkopetentzia» edota hedabideek sustatutako «desitxuratzearen» arabera molda daitekeen materia bilakatu dira.

Hala eta guztiz ere, kasu honen izaera kezkagarriari buruzko espekulazioak hasiera-hasieratik agertu ziren, amak bahitzaileei idatzi zientetik:

Ya ustedes señores secuestradores conocen a mis hijos. Saben que no son malos y saben que nacieron para no ser negociados... Si Dios los escogió para finalizar con la misión de esas criaturas, no puedo hacer nada para evitarlo. No soy nadie delante de ustedes ni delante de Dios. Sólo les suplico que lo hagan rápido y mientras ellos duermen, les suplico que le den una foto de cualquier santo para que no se sientan solos. Lo único que puedo yo hacer de mi parte es rezarle a sus ángeles para que la subida al cielo sea rápida y hermosa (Blanco Muñoz, 2006).

Faddoul anaien eta beren txoferraren gorpuek Venezuela astindu zuten, agerian utzi baitzuten herrialdeak bizi duen biolentzia egoera eta iritzi publiko nazionalak —oposiziokoak zein ofizialistak— nazioaren seme gisa interpretatu baitzituen.

2.3. Aita

2005eko urtearen amaiera. Hedabideen arabera, gobernuak, estatuko petrolio-industriaren bitartez, 2006ko inauteri kariokan parte hartuko zuen sanba-eskola brasildar bati diruz lagundu nahi zion. Izan ere, eskolaren proposamena Simón Bolívarren ingurukoa zen eta hura buruzagi kontinental gisa aurkezteko asmoa zuen. Zortzi karroza alegorikoetako batean, hamairu metroko panpin artikulu batek, hots, Askatzaileak, desfilatuko zuen eta jendea agurtuko zuen «pero en vez de blandir su espada, sostendría en su mano [...] un corazón rojo ien nombre de la paz y de la armonía» (Escuela...). Berria bizkor zabaldu zen eta gobernu boliviarraren inbertsio osoa enigma nazional bihurtu den arren⁷, Venezuelako oposizioak, hasiera batean, Hugo Chávez presidentearen nazioarteko txeketzorro zabalaren gastu bat gehiago zela pentsatu zuen.

Otsailaren 27an, astelehena, goizeko 3:15ean, Vila Isabel eskola Rioko sanbodromoan sartu zen eta abenida ezaguna zeharkatu zuen, hiru mila bostehun parte hartzailetik gora eta indioilar eta faisaien bost mila luma zituen desfilean. Nazioarteko kazetaritzakronika batek eskolaren parte hartzea jaso zuen:

Las carrozas y bailarines avanzaron en medio de la samba «Soy loco por ti, América», cantada en portugués... en un acto sin precedentes en el templo del carnaval brasileño. Al hacer su entrada [...] Vila Isabel desplegó grupos de bailarines vestidos en trajes típicos del continente en medio de racimos de bananas que se abrían al compás de la samba, para seguir con la presentación de lujosas carrozas que representaban a Latinoamérica desde la época precolombina al momento actual (ANSA, 2006: A-9).

Askatzailearen panpinaren inguruan eta piramide erraldoien gainean dantzatzeko zuten *luma diztiratsuko dantzarien* artean, Eva Perón, Che Guevara, Benito Juárez, Sandino, Gabriel García Márquez, Frida Kahlo, Pablo Neruda eta Carmen Miranda bezalako beste pertsonaia latinoamerikar batzuek Bolívarren batasunaren ametsa islatzea zuten helburu. Simón Bolívarren inauterietako irudiak —eskolako antolatzaileek aukeratutakoak eta PDVSA-ak finantzatutakoak— iritzi publiko nazionala atsekabetu zuen, honek Aberriarren Aitaren irudikapena errespetugabea zela uste baitzuen. «Mamarracho», «vergüenza nacional», «aberración», «hazmerreír continental» izan ziren eztabaida sutuetan erabili zituzten adjektibo leunetako batzuk; baina, harrigarria dirudien arren, nonahi zabaldu zen Venezuelako gobernuak Bolívar gay bat finantzatu zuelako interpretazioa⁸.

Gertakari hark gobernu nazionalaren aurkako salaketa ugari eragin zuen. Oposizioko politikariak, instituzio erlijiosoak eta Historiako Akademia Nazionala kexatu egin ziren gobernuak Askatzailearen

OHARRAK

7 | Zehaztu gabeko diru-laguntzari dagokionez, informazioa aztertu ahal izan dut, bi aldeek esandakoan oinarrituta. *Vila Isabel*-eko presidenteak adierazi zuen kontratuan PDVSA-ren diru kopuruari buruzko «konfidentzialtasun artikulu» bat zegoela eta, haren arabera, ezinezkoa zela zifra zehatza jendaurrean jakinaraztea. Dirudienez, berrehun mila eta milioi t' erdi dolareen artekoa izan zen, baina diru kopuru zehatza isilpean mantendu dute. Brasilen dagoen Venezuelako enbaxadako buruak, *El Nacional* egunkarian 2006ko otsailaren 16an argitaratu zuten artikulu batean, diru kopuru zehatza ezagutzen ez duela dio, baina milioi bat dolareetik beherakoa izan zela azpimarratzen du.

8 | «El Gran Varón: disputas del cuerpo nacional venezolano en tiempos de revolución» nire artikuluan Bolívar gay batean pentsatze hutsak eragin zituen deserosotasunei buruz hausnartzen dut eta, batik bat, baita gobernu bolivariarrak Askatzailea «armairutik irtetea» nola edo hala galarazteko aplikatu zituen ezusteko estrategiei buruz ere.

gorputza «marikoneatu» zuelako. Presidenteak jendaurrean txintik ere ez esateak espekulazioak areagotu zituen. Nolanahi ere, 2006ko martxoaren 5ean, *Aló Presidente* 248. zenb. programan, Hugo Chávez berriro agertu zen. Kronika berri bat, gorago aurkeztu ditudan kazetaritza-erregistroetatik abiatuta berridatzitakoa, aurrekoak ezabatzen eta ordezkatzan ahalegindu zen:

Eran las 3 y media de la mañana cuando entró Villa Isabel en el Sambódromo de Río de Janeiro y miles, cien mil, ochenta mil, cien mil personas se pusieron de pie a ovacionar a Villa Isabel, a su magia, a su canto *Soy loco por ti, América*, y a Bolívar. Al ritmo de samba, al ritmo del amor, al ritmo de la alegría, de la utopía, del nuevo tiempo que amanece en estas tierras. Vean qué figura majestuosa de nuestro Simón Bolívar [...].

Eta, hurrena, Aberriaren Aita deskribatzen du:

además con unos rasgos negroides, que [se] me parece también. Porque a Bolívar la oligarquía venezolana lo convirtió en blanco. Yo no tengo nada contra los blancos [...], pero Bolívar no era blanco. Es más, dicen que nació en Capaya [...] Bolívar nació entre los negros. Bolívar tenía el pelo rizado. Bolívar era más negro que blanco. No tenía los ojos verdes. Y ustedes ven retratos de Bolívar con los ojos verdes, el pelo amarillento y la cara blanca. Bolívar era chiquito y lo ponen grandote. No, Bolívar era chiquitico, con la voz chillona y era zambo.

Interesgarria da gorputzen nahasketa. Badirudi Hugo Chávezen erantzunak ukatzen duela Askatzaileari buruzko polemika haren inauterietako irudiaren⁹, gorputz *marikoia*ren, ondorioz pizten dela, eta ez bakarrik irudikapen mestizoagatik. Presidentearen Bolívar zanboaren helburu nagusia ez da gorputz nazionala mestizatzea — Venezuelan, bestalde, ohikoa den operazioa—, baizik eta Bolívar *armairutik irteteko* aukera urruna nola edo ahala ekiditea. «Simón enplumatuak» —Globovision oposizioko kateak Riora bidali zuen Nelson Bocaranda kazetari Venezuelarrak deskribatutakoak— ez ziren presidentearen eztabaidan agertu. Chávezek, bere telebista programan *El Nacional* egunkariko artikulua bati buruz hitz egin zuenen, eztabaidaren gaia baztertu zuen, hitz hauekin: «Lo demás son otras cosas que no vale la pena leer. Sólo quería referirme a esto».

3. Familia normalizatzea

Aita *marikoia*, gerritik puskatutako eta baztertutako ama, asasinatutako seme atzerritarrak; Venezuelako familia *sakratua* desegin egin da. Gorputzaren botereekin lotutako antsietatea, nazioaren irudikapenetan oinarritutakoa, ohiko kontua da. Venezuela polarizatuak familia higuingarriaren sorrera ahalbidetu du, nazioaren familia *sakratua* —mestizoa— desitxuratzen duten gorputzez osatutakoa, aurkariaren azpijoko makurrak, boterearen

OHARRAK

9 | Dirudienez, Simón Bolívarri inauteriak gustatzen zitzaizkion. Sir Robert Ker Porter-ek honakoa idatzi zuen bere egunerokoan: «Lunes 26 [...]. Como esta es la desagradable época en que esta gente tira huevos llenos de fluidos de todas clases, *sans respect*, además de harina, almidón y otras molestias polvorientas, me quedaré en casa hasta que cese esta locura. No ha llovido. Termómetro, 20o a las 7 h y 24o a las 4 h» (Ker Porter, 1997: 196). Eta: «Martes 27. Bolívar está ausente en casa del general Ibarra donde, según me dicen, vestido de chaqueta blanca, alegremente, se une al lanzamiento de huevos y otros deportes del festival, como un muchacho de 18 años» (1997: 196). Paulette Silva-ri eskerrak eman nahi dizkiot Porter-en arrastoaren atzetik jarri ninduelako.

—exekutiboa zein sinbolikoa— aurrean sektore politiko ezberdinek duten desadostasuna, salatzen. Polarizazio politikoak eta harekin lotutako biolentziak, garai iraultzaile hauetako adierazgarriek, zalantzarik gabe, gorputz hauengan eragin zuzena dute, gorputzen irudikapena moldatzen dute. Gorputza lekune sentikorra da nazioaren operazioetarako. Deskribatu ditudan kasu guztietan, gorputzaren materialtasuna eztabaida-gunea ere bada. Guztiak dira gorputzak zentzu zorrotzean. María Lionza jainkosaren estatuak —bere gorputz-ikurra erakusten duen gorputz sendoa— pelbis bat gorago du bestea baino, sexualitatearen eta boterearen adierazgarri eztabaidaekin; umeen gorputz asasinatuak bat datoz beren errealitatearekin, hilda baitaude —hilotzak edo gorpuak, erregistro penalean— eta hamairu metroko panpin artikulatuak argi uzten du bere materialtasuna. Familia higuigarria da: gorputzak desitxuratu egin dira eta, era berean, gorputzekin (gorputz puskatuekin) nazioko gorputzak ordezkatzeko dituzte.

Familia berri higuigarri hori Venezuelako familia *sakratua* normalizatzeko asmatzen dute, noski. Eta, zentzu honetan, ika-mika diharduten aldean arteko adostasuna lortzen dute. Inperatibo nazionalak zatitutako gorputzak, boterearen liskarrean zauritutakoak, normalizatzen, *zuzentzen* dituzten estrategiak erabiltzen ditu. Azkenean, Simón Bolívarren inauterietako gorputzak Aberriko gorputzetan kontserbadoreenari, hots, presidenteari eragiten dio. Aipatu gorputzak nahasteko estrategia argien ondorioz, 2005eko lehendakaritza kanpaina Rioko karrozaren eta Aberriko Aitaren gorputzaren arteko bertsio lokala eraiki zuten, eta, horretarako, Chávezen zuzeneko irudikapena erabili zuten orainoan. Rion aurkeztutako hamairu metroko panpina gomazko panpin kreol bihurtu zuten. Bestetik, kopia batek María Lionzaren estatua ordezkatu zuen eta Caracaseko autopista zalapartatsuan kokatu zuten berriro. Bere gorputzak, orain, Nazioaren batasun mestizoa —erlijiozkoa, arrazazkoa— islatzen du berriro ere. Faddoul umeen gorputzak ez zituzten lurperatu. Senideek gorputzak errausteko baimena eskatu zuen eta eman egin zieten. Berri horrek mesfidantza piztu zuen; kronika baten arabera:

A los detectives les preocupa que se autorizara la cremación de las víctimas. Temen que durante el proceso requieran realizar experticias posteriores a los cadáveres. Por regla general se prohíbe esta práctica hasta que el caso quede cerrado, definitivamente firme y se condene a los imputados (Blanco Muñoz, 2006).

Hala eta guztiz ere, gomendio guztiak gorabehera, gorputzak desagertu egin ziren, modu sinboliko zein materialean.

Nolanahi ere, gorputz nazionala berrantolatu ostean, posible al da irudikatzea beste gorputz batzuk —sexuatuak, arrazazkoak— nazioaren espazioan? Azpimarratu dut gorputz eta sentsibilitate

arrotzak familia higuigarri baten sorrera ahalbidetzen duten iruzkin fobikoetatik abiatuta agertzen direla. Orain, ordea, gorputz sexuatupei buruz hausnartu nahi nuke. Biziraun ote dezakete gorputzek Venezuelako nazioaren inperatiboan artean? Esate baterako, gay gorputza —edo homosexuala, gorputz gaixo, patologiko gisa deskribatzen dutelako— etengabe irudikatu izan da deformazioak islatzeko. Salbuespen egoerak eta bizitza biluziak (Agamben, 1998) boterearen estrategia bortitzak agerian utzi dituzte. Gay gorputza maiz aipatu dute Venezuela boliviarrean: Chávezek Brasilgo emakumezko transexual bati musu eman zion —geroago jendaurrean argitu eta normalizatu zuten, presidenteak musua gizon bati eman ziola ez zekiela esan zutenean—, Espainiako artikuludazle batek Hugo Chávezen sexualitateari buruz zalantzak zituen —Presidenteak ere gezurtatu zituen—, Venezuelako Errepublika Boliviarreko Fiskal Nagusiaren hitzak, sexu-segada gay baten ondorioz asasinatu zuten apaiz katolikoari buruz¹⁰, Asanblada Nazionaleko emakumezko presidenteak Venezuelako legediak homosexualen eta, hortaz, Elizan ezkutatutako homosexualen eskubideak bermatzen zituela esan zuen edota Presidenteak berak jendaurrean ministro eta funtzionario publiko ezkongabeei ezkon zitezela eskatu zien. Era berean, gay gorputza Nazioarentzat *desegokiak* diren itunak irudikatzeko erabili dute. Enrique Krauzek Fidel Castroren eta Hugo Chávezen arteko topaketa baten amaiera deskribatzen du *El poder y el delirio* bere liburuan: «Y en una escena simétrica a la del día en que se conocieron en La Habana, Chávez lo despidió “lanzando besos con la mano en el aire”» (2008: 73). Irudikatutako eszena itun *arriskutsua* da Venezuelako estatuko sektore batzuentzat eta ideia hori adiskidetasunaren homoerotizazioaren bitartez islatzen dute. Kasu hauek guztiek gorputz heterosexual venezuelarra hobesteko balio dute, Nazioaren bikote heteronormatiboa. Nazioaren gorputzek, Venezuelako familia *sakratuak*, familia-talde higuigarri berria, anormala, behar dute beren *normaltasuna* aldarrikatzeko. Hala ere, *beste* gorputz hauek —sexuatuak, arrazazkoak, Nazioak baztertutakoak— bizitza berria beregaten dute eta nazioaren irudikapenen atzeko atetik nola sartzan diren interesatzen zait. Bizitzeko espaziorik geratzen al da haientzat?

Galdera horri erantzuten ahalegindu aurretik, gorputzari buruzko gerturapen teorikoen berri emango dut —filosofian eta genero eta sexualitate-ikasketetan oinarrituta—, nazioaren inperatiboak, fobiek eta biolentziek baztertutako gorputzek dituzten aukerak proposatzeko.

4. Gorputza

OHARRAK

10 | Julián Isaías Rodríguez Errepublikako Fiskal Orokorra asasinatutako apaizaren sexualitatea frogatzen zuten gorputz-xehetasunei buruz mintzatu zen. Bereziki, «uzki aldeko urradurak» aipatu zituen eta bortxaz hildakoak bere hilketan «aktiboki» parte hartu zuela adierazi zuen.

Gorputzean irudikapen ugari inskribatu dituzte, bertan boterea eta zentzuekin lotutako operazio askori buruzko metafora egin dute. Gorputza jabetza-lekuaren metafora izan da eta jabetza-lekua bera gorputzaren metafora. Hala eta guztiz ere, eraikuntza kultural horrek hainbeste metafora pilatu du haren inguruan, ezen nire buruari galdetzen baitiot: posible ote genuke esanahi horiek alde batera uztea? Zein neurritan da posible materia aipatzea metafora bihurtu gabe? Gorputzak materia gisa duen irudikapena interesatzen zait, baina alegoriaren ikusmolde tradizionalaren, haren operazio metaforikoen, osagai autonomoa den —materialtasunetik aske— performatibitate sexualaren ideien aurkako zentzuan. Definitiboki, ez dirudi haren bultzadak indibidualki jarduten duenik.

Nahikoa hitz egin ohi da, beharbada, gorputz alternoei buruz bizitza biluzi gisa, debekatutako eta zigortutako gorputzak iradokitzeko erabil daitezkeen jabetza-leku markatu gisa. Gay gorputza, emakumezko gorputza, gorputz atzerritarra —bata besteari gainjar daiteke— isilarazteko joera dago eta, Nancyk dioen bezala, horiek guztiak nazioaren eskuetan hondoratzen dira. Nancyren teoria bereziki interesgarria da beste gorputz hauei buruz aritzeko, kanpokotasun osoa proposatzean gorputzek egoera materiala bereganatzen baitute. Nancyren ikusmoldea, gorputzaren izaera kartesiarraren aurkako, ez dator bat gorputz foucaultiarrarekin. Azken horren arabera: «el alma aparece como un instrumento de poder a través del que se cultiva y se forma el cuerpo. En cierto sentido, obra como un esquema cargado de poder que produce y realiza el cuerpo mismo» (Butler, 2002: 62). Michel Foucault-en arabera, arima gorputzaren kartzela da.

Judith Butler-ek argitaratutako *Gender Trouble* lanak jakinmin berezia piztu zuen performatibitate sexualaren kontzeptua dela-eta. Baina, era berean, teoria feministaren beraren kritikak jaso zituen, berau eszeptikoa baitzen proposamen butleriarraren funtzionalitateari zegokionez (Armour, 2006: 8). Hala eta guztiz ere, kritika esanguratsuenetariko bat sexuaren eta gorputzaren materialtasunaren —sexualitatearen euskarri gisa— gabeziari buruzkoa izan zen, hura osagai performatiboen esperientzia bezala ulertu arren. Butlerrek, bere buruari buruz ari zela, «materialista txarra» zela esan zuen, baina hiru urte geroago *Bodies that Matter* argitaratu zuen, eta bertan sexualitatearen izaera materiala aztertu zuen, jaso zituen kritika ugari erantzuteko asmoz. *Gender Trouble* generoari buruzko hausnarketa da, *Bodies that Matter*, berriz, sexuari eta generoarekin hertsiki lotutako materialtasunari buruzkoa. Butler eraikuntzatik materialtasunera igarotzen da eta, horrela, sexua eta gorputza finkatzeko botere-harremanen araudiek duten pisua frogatu nahi du. Materialtasuna arau erregulatzailen mendekoa denez gero, Butlerrek gogorarazten du gorputzak materializatzeko prozesua inperatibo heterosexualaren araberkoa dela, identifikazio

sexual batzuk onartzeko eta beste batzuk baztertzeke. Biko oposizioa maskulino-femenino harremanean oinarrituta dagoen arren, femeninoa baztertu ohi da (Butler, 2002: 66).

Gorputz/sexuaren materializazioaren berri emateko, Butlerrek gorputzari esangura kentzen dio eta gorputz, kultura eta sexu aurreko balizko fasea finkatzen du. Prozesu horri esker, alegoria eta metafora faseetatik kanpo dagoen gorputza ondoriozta genezake. Hala eta guztiz ere, *Bodies that Matter* laneko ezaugarriarik interesgarrienetako bat beste mugimendu osagarri batekin lotuta dago: sexuaren esparrutik —instantzia erregulatzailer eta materializatzailer gisa— kanporatu eta bazterturikoa (ukatutakoa) «irudizko oposizioz» gainezka itzultzen da eta, are gehiago, sexuaren hortzemuga sinbolikoa muturreraino berrartikulatzen duen eta gaitzeko ahalmena duen antolakuntza gabezia gisa itzultzen da. Bizirauteko modu bakarra hura osatzen duten metaforak hustean edo sistematikoki baztertzean datza. Zentzu horretan, Nancyren eta Butlerren proiektuek —botere-taktika konplexuak eta konpulsio heteronormatiboa gorabehera— aukera bat eskaintzen digute, bizikidetzarako lekune bat. Nola materializatzen da antolakuntza gabezia hori? Nola biziraun dezakete gorputzek nazioko biolentziaren gainetik? Nola eutsi diezaiokete *beste* gorputzek gorputz nazionalak desitxuratzeko agente gisa erabiliak izateko joerari?

5. Bolívarren gorputza

«Bolívar ha vuelto a la batalla». Hugo Chávezek indarrez esan zituen hitzok, beste behin irrati zein telebista nazionaletan hitz egin zuenean, Askatzailearen gorpua lurpetik atera eta egun gutxi batzuk geroago. Simón Bolívar gurera itzuli zen berriro ere. 2010eko uztailaren 14 eta 15 artean, Askatzailearen giza hondakinak telebista nazionaletan erakutsi zituzten, hilotzaren hondakinak lurpetik ateratzeko agindu ondoren. Baina zergatik momentu hartan? Zer ezkututzen da Aberriaren Aitaren hilotza telebistan erakutsi nahi izatearen atzean? Alde batetik, Simón Bolívarren giza hondakinak lurpetik ateratzeko ardura zuen presidente-batzordearen jokabideak Chávezen espekulazioekin lotura du. Noiz edo noiz, presidentek bi hipotesi aipatu ditu: (1) Bolívarren sarkofagoan dagoen gorpua ez da Askatzailearena, Kolonbiako oligarkiak usurpatu zuelako, eta (2) Simón Bolívar asasinatu egin zuten —pozoitu?—, beharbada, eta ez zen, historialariek uste duten bezala, turberkulosiaren ondorioz hil. Giza hondakinak lurpetik ateratzearen helburua, hortaz, presidentearen zalantzak argitzea zen, hipotesietako bat baieztatzea edota, aldiz, ezeztatzea¹¹. Hala eta guztiz ere, argi utzi beharra dago Bolívarren hilotza zuen berunezko kutxa ez zutela 1843tik hona ireki, José María Vargas eta bere batzordeak Bolívarren gorpua Santa

OHARRAK

11 | Giza hondakinak lurpetik atera ondoren egin zituzten ikerketek gorpua Simón Bolívarrena zela baieztatu zuten.

Martatik (Kolonbia) Caracasesera eraman zutenetik.

Presidenteak birritan eman du zalantza horien berri, baina gorpua lurpetik ateratzeak mesfidantza piztu du. Horregatik, Hugo Chávezek maiz ezeztatu behar izan du oposizioaren zurrumurrua, hots, Bolívarren giza hondakinak lurpetik ateratzeak santu-errituren batekin zerikusia duela. Nire galderak, presidentearen hipotesiak baieztatu edo gezurtatzeaz haratago, giza hondakinak lurpetik ateratzeko arrazoiei buruzkoak dira. Are gehiago: zein da Askatzailearen eskeletoa telebistan erakusteko erritu nazionalaren esanahia? Nola interpretatuko du jendeak gertakari hori gaur egungo Venezuelan? Zein da telebistako irudiek herrialdearen egoera politikoan duten pisua? Erantzun eta ideia batzuk proposatu nahi nituzke, gorpua lurpetik ateratzeak gertakari politikoak —Bogotarekin harreman diplomatikoak etetea, esate baterako— eragin baititu. Ez dut uste, ordea, Presidentearen edota Gobernuko Sala Situazional ezagunaren taktika argia denik. Aitzitik, Presidentearen gehiegikeria boliviarrekin lotutako arriskua, intuizioa, dela esango nuke, gehiekeria horiek izan baitira, hain zuzen ere, orain arte Chávezen gobernagarritasuna eta karisma baldintzatu dutenak eta, orain arte, hauteskundeetan ere arrakastatsuak izan direnak. Ez al gaude, hortaz, orain arte gertatu den Bolívarrekiko gurtza-adibide handienaren aurrean? Ba al dago, aurrerantzean, Aberriaren Aita modu esanguratsuagoan gurtzeko modurik?

Elías Jaua Venezuelako presidenteordeak hedabideei helarazitako txosten baten arabera, Bolívarren giza hondakinak metakrilatozko kutxa batean sartu zituzten, hura hutsean itxi zuten eta Guayanako urrezko torlojuak jarri zizkieten. Kutxa larre-zedroaren egurrezko sarkofago batean sartu zuten eta haren estalkian urrezko armari nazionala txertatu zuten. Era berean, presidenteak Bolívarrek panteoi berria izango zuela agindu du eta kutxa berria estaliko duen bandera bera *herri* bolivariarraren eskuek egosi dute, orain arte sekula ikusi gabeko performane baten bitartez. Nolanahi ere, argi dago Chávezek, Bolívarrekin nahasteko obsesioan, estrategia bat baino gehiago hausnartu duela. Horietako bat da aberriaren sinboloen berrasmakuntza eta bere burua aintzat izango duen sinbologia nazional berria. 2006an Rioko inauterietan desfilatu zuen karroza handiak ere aberriari buruzko istorio harrigarrienak eragin zituen; besteak beste, Presidenteari Aberriaren Aita desitxuratu eta hari okerreko gorputza esleitu izana leporatu zioten. Nola ote, hortaz, oinarririk gabeko hipotesi batengatik —Chávezek berak esan zuen Twitterren bitartez, Bolívarren gorpuaren giza hondakinak lurpetik atera eta minutu batzuk geroago, hezurak, inongo zalantzarik gabe, Bolívarri *zegozkiola*— nazioak Askatzailearen sarkofago sakratua irekitzea erabaki izana? Uste dut —momentuz, artikulua hau idatzi bitartean istorioa ez baita oraindik itxi— Bolívar-nazioa-Chávez identifikazioa nahikoa izan dela gurtzaren hezurretaraino iristeko eta

OHARRAK

12 | Nortasun Venezuelarra gorputz bakarraren inguruan egituratuta dago. Hala eta guztiz ere, Fernando Coronilek, Venezuelari buruzko bere tesian, bi gorputzen ideia proposatzen du eta horietako bat alegorikoa dela dio: «As an oil nation, Venezuela was seen as having two bodies, a political body made up of its citizens and a natural body made up of its rich subsoil. By condensing within itself the multiple powers dispersed throughout the nation's two bodies, the state appeared as a single agent endowed with the magical power to remake the nation». (Coronil, 1997: 4).

hura modu pentsaezinean hiperbolizatzeko. Planifikaturiko proiektuen artean, ikerketa bat sustatu nahi dute *software* espezializatu baten bitartez Askatzailearen aurpegiaren irudi konputarizatu eta hiru dimentsioduna antzemateko. Nire buruari galdetzen diot: Bolívarren aurpegia Hugo Chávezenaren antzekoa izango al da? Norainokoa da Venezuelako herriak Bolívarren gorputzarekiko duen gurtza?

Hala eta guztiz ere, Simón Bolívarren giza hondakinak lurpetik atera izanaren ondorioa ez da presidentearen eta Askatzailearen gorputzen arteko balizko irudikapen soila, Bolívarren gorputzaren jabetza sinbolikoa ere kontuan hartzekoa baita. Michael Taussigen arabera, Bolívarren giza hondakin espiritual eta materialen jabetza hori Venezuelako estatuaren irudiaren oinarria da. (Lomnitz, 2006: 39). Hugo Chávezek, Aberriaren Aitaren sarkofago *sakratua* irekitzeaz batera, argi utzi du jabetza hori. Taussigen iritziz, Chávez presidentea autoritatearen sorrera mistiko horren emaitza, gorputza da.

The dead are a great source of magical élan, grace, and power. This has been present in many cultures since the first burial. Indeed Georges Bataille (...) argued from archaeological evidence and physical anthropology that the corpse is the origin of taboos, respect for the dead being what separates the human from the animal... Just imagine, then, the power that can accrue to the modern state, that great machine of death and war! People today gain magical power not from the dead, but from the state's embellishment of them. And the state, authoritarian and spooky, is as much possessed by the dead as is any individual pilgrim. The current president of Venezuela, Hugo Chávez, is the embodiment of this. In a sense he was predestined by this mystical foundation of authority as writ into the post-colonial exploitation of colonial history (Levi Strauss, 2005).

Horrela, presidente bakoitzaren gorputz-idealen arabera moldatu dute Bolívarren gorputz jabetua. John Lynchek dioenez, Venezuelako diktadoreak ere horretaz baliatu dira, gorago esan dudana bezala, Askatzailearen oinarritzko idealak kontuan hartuta. Hugo Chávez presidentearen gobernuak —Lynchen arabera, beti ere— ezaugarri berria sortu du, Bolívar sozialista:

But the new heresy, far from maintaining continuity with the constitutional ideas of Bolívar, as was claimed, invented a new attribute, the populist Bolívar, and in the case of Cuba gave him a new identity, the socialist Bolívar. By exploiting the authoritarian tendency, which certainly existed in the thought and action of Bolívar, regimes in Cuba and Venezuela claim the Liberator as a patron for their policies, distorting his ideas in the process (Lynch, 2006: 304).

Simón Bolívarren gorputzak, etengabe berau desitxuratzeko saiakera ugari dagoen arren, Venezuelako familia *sakratua* orekatzen du¹². Simón Bolívarren gorpuak, protestak gorabehera,

familia nazionala indartzen du. Arrazoi horrengatik, Askatzailearen sarkofago *sakratua* irekitzeak nazioko gorputz preziatuenaren, Venezuelako estatuko irudiaren, jabetza azpimarratzen du.

6. Gorputzaren kulturak

Artikulu honetan aztertu dudaren arabera, salatzen eta baieztatzen joera handia dagoen arren, aurkari politikoak familia Venezuelarra desitxuratzeko duen ardurak, gorputza bere horretan mantentzeko beharrak eta estatu-nazioaren irudiak pisu handiagoa izan dute ezberdintasunek berek eta aldi bereko boterea izateak baino. Ernest Renan-ek azpimarratzen duen bezala, nazioa ondare jakin baten —lehenaldia— jabetzan eta orainaldiko adostasunean —elkarrekin bizitzeko nahia— datza (2003: 19). Venezuelak figura boteretsua du, gorputz bakarrekoa. Gorputzaren inguruan dago bere irudia eta gorputzaren inguruan eraikitzen da familia *sakratua*, lehenaldiko lorietan, emantzipazio balentrietan, oinarritutakoa, baina uneoro eguneratzen dena. Simón Bolívar da familia-burua eta ahaleginak egiten ditu gorputz nazionala bere horretan mantentzeko. Venezuelako panteoiak —Mexikokokoak ez bezala, esate baterako, kasu horretan maiz elkar hil zuten eta proiektu nazional ezberdinak zituzten buruzagietan oinarrituta baitago— Bolívar du figura sortzaile bakar eta eztaba daezin (Lomnitz, 2009: 39-40). Figura hegemoniko horrek, etengabe aipatzen denak eta gorputz nazionalaren irudia islatzen duenak, haren transformazioa zailtzen du. Hala eta guztiz ere, uste dut gertakari jakin batzuek nazioaren gorputz sendoa berrinterpretatzea eta, zentzu batean, une batetik bestera desegonkortzea eragin dezaketela.

Kasu horietako bat 1994an gertatu zen, Juan Domingo Dávilaren postalean oinarrituta. Txilek Venezuelako gobernuaren kritikazorrotzei aurre egin behar izan zien —baita Ekuador eta Kolonbiakoei ere— Davilaren *El libertador Simón Bolívar* lana finantzatu zuelako. Irudian, artistak Bolívar margotu zuen, emakumezko titiak agerian dituela, biluzik gerritik behera, aldaka handiekin eta ezaugarri mestizoekin eta eskuarekin keinu isekari bat egiten duela. Lana Londreseko *Hayward Gallery*-an aurkeztu zuten, baina Latinoamerikan postal baten bitartez ezagutarazi zuten. Venezuelak, prentsa-komunikatu baten bitartez, egoera salatu zuen: «una campaña orquestada de desprestigio en contra del más sagrado valor de nuestra nacionalidad» (Lomné, 2002:33). Davilaren irudiaren infiltrazioak, hura ibilbide artistikotik at zabaltzea erabaki zutenean, eragin handia izan zuen: «el repentino estallido de historias e histerias nacionalistas, ideologías del (buen) gusto artístico, represiones sexuales, mitologías latinoamericanas, oficialismos políticos y burocracias de la cultura ministerial»

(Richard, 2001: 180). Aberriaren Aitarekin izan zuten jokabidea onartezina izan zen eta salatu egin zuten¹³. Txileko burokraziaren erantzun sendoak Bolívarren gorputza *irrigarri utzi izana* leundu zuen.

Venezuelaren eta herrialde bolivariarren zuzentasun fobikoa gorabehera, Davilaren postalak nazioaren irudiaren erdigunean jo zuen. Lanak Venezuelako nortasuna hegemonizatzen duen gizonezko gorputzaren arraza, generoa, klasea eta ilustrazioa — Bolívarren keinu isekaria dela-eta— ezbaian jarri zituen. Brasilgo inauterietako Bolívar gayarekin gertatu ez bezala, Txileko irudiak nazioa desegonkortu zuen une batetik bestera, aldi berean gorputz nazionalaren eta haren mitologiaren eta biolentziaren oinarriak zalantzan jarri eta biluzik utzi zituenean. Orduan, baztertutako sentsibilitateak azaleratu ziren eta zauri sakona utzi zuten. Zauri horrek espazio behin-behinekoa baina esanguratsua irekitzen du nazioaren gorputzean. Metafora edo alegoria ez bihurtzeko erresistentzia eta gorputzek ez direna irudikatzeko duten funtzioa dira, hortaz, *gorputzaren kultura* konplexu hauetan baztertutako arraza, klase, sexualitate eta sentsibilitate anitzen erronka.

OHARRAK

13 | Pedro Lemebel-ek, *Loco Afán* bere liburuan agertu zen «Juan Dávila (la silicona del Libertador)» kronikan, polemikari buruz hitz egiten du: «Sin querer echarle leña al fuego, más bien soplando de reajo la hoguera que se armó con la pintura postal del artista Juan Dávila, donde aparecía un Bolívar tetón y ligero de cascos, mostrando las nalgas morenas de la utopía latinoamericana. Y hay que ver cómo volaron plumas y corrieron los secretarios de embajada con la postal del Libertador en toples. Como si traficaran una porno donde la historia lucía erótica y coqueta, desempolvada por el bisturí plástico de la Juani» (1996: 135)..

Bibliografía

- (2004): «Diosa pagana se rompe por división política en Venezuela», *Pobladores*, 04/08/2004, <http://www.pobladores.com/channels/religion/MARIA_LIONZA_LA_MADRE/area/30>, [26/11/11].
- (2004): «Chávez acusa a la oposición venezolana de utilizar el poder de 150 hechiceros», *L'Absurd Diari*, 19/07/2004, <<http://www.absurddiari.com/s/llegir.php?llegir=llegir&ref=4822>>, [26/11/11].
- (2004): «Cae María Lionza», *La Prensa*, 07/06/2004, <<http://mensual.prensa.com/mensual/contenido/2004/06/07/hoy/mundo/1717520.html>>, [26/11/11].
- (2004): «La Fundación Alejandro Colina emite un comunicado ante la fractura de la estatua de María Lionza», *Aporrea*, 10/06/2004, <<http://www.aporrea.org/imprime/n17394.html>>, [26/11/11].
- (2006): «Ministro Jesse Chacón confirma abominable muerte de hermanos Faddoul y su chofer», *Globovisión*, 04-04-2006, <<http://historico.globovision.com/news.php?nid=25030>>, [26/11/11].
- (2006): «Madre de los Faddoul pedirá a la Iglesia que sus hijos sean declarados mártires», *El Universal*, 06/04/2006, <http://www.eluniversal.com/2006/04/06/imp_pol_ava_06A690875.shtml>, [26/11/11].
- (2006): «Escuela de samba desfilará con financiamiento del gobierno de Venezuela», *El Universal*, 09/03/2006, <http://www.buscador.eluniversal.com/2006/02/09/pol_ava_09A669533.shtml>, [26/11/11].
- (2009): «Chávez dice que “hay muchos gordos en Venezuela” y los manda a rebajar», *Noticias24*, 28/10/2009, <<http://www.noticias24.com/actualidad/noticia/105508/chavez-dice-que-hay-muchos-gordos-en-venezuela-y-los-manda-a-rebajar/>>, [26/11/11].
- (2009): «Informe del SENIAT sobre Exposición *Bodies*». Radio Nacional de Venezuela, 13/03/2009, <<http://www.rnv.gov.ve/noticias/?act=ST&f=29&t=92596>>, [26/11/11].
- (2011): «Comunicado oficial: Líder de la Revolución Bolivariana se recupera satisfactoriamente de procedimiento quirúrgico», *MTC*, 11-06-2011, <<http://www.mtc.gob.ve/noticias-institucional/comunicados/2554-comunicado-oficial-lider-de-la-revolucion-bolivariana-se-recupera-satisfactoriamente-de-procedimiento-quirurgico->>, [26/11/11].
- AGAMBEN, G. (1998): *Homo Sacer: Sovereign Power and Bare Life*, Stanford: Stanford University Press.
- ANSA (2006): «Bolívar desfiló en Río de Janeiro», *El Nacional*, 28/02/2006, A-9.
- ARMOUR, E. (2006): *Bodily Citations: Religion and Judith Butler (Gender, Theory, and Religion)*, Nueva York: Columbia University Press.
- BLANCO MUÑOZ, A. (2006) «No hay todavía respuestas a preguntas del caso Faddoul», *El Universal*, 16/04/2006, <http://www.eluniversal.com/2006/04/16/imp_pol_art_16105A.shtml>, [26/11/11].
- BRACCI, L. (2009): «Chávez: “Exposición *Bodies revealed* es una barbarie”», *Yvke Mundial*, 08/03/2009, <<http://www.aporrea.org/ddhh/n130306.html>>, [26/11/11].
- BRACCI, L. y GARCIA, M. (2009): «Exposición *Bodies Revealed* suspendida por el SENIAT», *Yvke Mundial*, 05/03/2009, <<http://www.radiomundial.gob.ve:8080/node/148830>>, [26/11/11].
- BUTLER, J. (1990): *Gender Trouble*, Nueva York, Routledge.
- BUTLER, J. (1993): *Bodies that Matter*, Nueva York: Routledge.
- BUTLER, J. (2002): *Cuerpos que importan*, Buenos Aires: Paidós.

- CORONIL, F. (1997): *The Magical State*, Chicago y Londres: The University of Chicago Press.
- DUNO-GOTTBERG, L. (2009): «Narrativas somáticas y cambio social. Notas para el cuadro venezolano», *Estudios*, nº 34, vol. XVII, 403-437.
- GUERRERO, J. (2009): «El Gran Varón: disputas del cuerpo nacional venezolano en tiempos de revolución», *Estudios*, nº 33, vol. XVII 7:33, 385-408.
- JAKUBOWICZ, S (2008): «¿Por qué Chávez ha aumentado de peso y qué puede hacer para adelgazar?», *Ni una dieta más*, 10/12/2008, <<http://www.niunadietamas.com/blog/?p=461>>, [26/11/11].
- KER PORTER, Sir R. (1997): *Diario de un diplomático británico en Venezuela. 1825-1842*, Caracas: Fundación Polar.
- KRAUZE, E. (2008): *El poder y el delirio*, Caracas: Alfa.
- LEMEBEL, P. (1996): *Loco afán: crónicas de sidario*, Santiago de Chile: Lom Ediciones.
- LEVI STRAUSS, D. (2005): «The Magic of the State: An Interview with Michael Taussig», *Cabinet*, nº 18, <<http://www.cabinetmagazine.org/issues/18/strauss.php>>, [26/11/11].
- LYNCH, J. (2006): *Simón Bolívar: A Life*, New Haven: Yale University Press.
- LOMNÉ, G. (2002): «La comunidad simbólica del manto de Iris o la huella de un sueño», *Análisis Político*, nº 47, 20-35.
- LOMNITZ, C. (2006): *La idea de la muerte en México*, México: Fondo de Cultura Económica.
- MARTÍNEZ, I. (2006): «Bolívar y la República de Costaguana», *Analítica*, 04/09/2006, <<http://www.analitica.com/va/sociedad/articulos/5324676.asp>>, [26/11/11].
- MENESES, G. (1979): “Introducción” en Boulton, A., *Armando Reverón*, Caracas: Macanao Ediciones,
- NANCY, J. (2003): *Corpus*, Madrid: Arena.
- NANCY, J. (2006): *El intruso*, Buenos Aires: Amorrortu.
- NANCY, J. (2008): *Corpus*, Nueva York: Fordham University Press.
- OROZCO, F. «SENIAT clausura en el Sambil exposición Bodies Revealed», *El Universal*, 05/03/2009, <http://www.eluniversal.com/2009/03/05/til_art_seniat-clausura-en-e_05A2243003.shtml>, [26/11/11].
- RENAN, E. (2003) «What is a Nation?» en Bhabha, H. (ed), *Nation and Narration*, Londres: Routledge. 8-22.
- RICHARD, N. (2001): *Residuos y metáforas (Ensayos de crítica cultural sobre el Chile de la transición)*, Santiago de Chile: Cuarto Propio.
- SÁNCHEZ, R. (2001): «Channel-Surfing: Media, Mediumship, and State Authority in the María Lionza Possession Cult (Venezuela)» en De Vries, H. y Weber, S. (ed), *Religion and Media*, Stanford: Stanford University Press, 388-434.
- SILVA BEAUREGARD, P. (2000): *De médicos, idilios y otras historias*, Bogotá: Convenio Andrés Bello.
- TRABA, M. (2005): *Mirar en América*, Caracas: Biblioteca Ayacucho.